



SAKANERRIA



Sakana

Irurtzun

Arakil

Irañeta

Uharte-Arakil

Arruazu

Lakuntza

- Mendilur elkartearen alde
- Zerbitzu anitzetako enple
- 45 haur udako ludotekan

Ergoiena

Arbizu

Etxarri Aranatz

Bakaiku

Iturmendi

Urdiain

Altsasu

Olazti

Ziordia

Mendilur elkartearen aldeko festa

Biharko egun guztirako egitarau zabala prestatu dute

Lakuntzan egoitza du Mendilur elkarteak eta herri hori aukeratu dute elkartearen aurkezpen festa egiteko. Sakandarren artean ezagutzera eman eta, aldi berean, baliabideak lortzea da biharko festaren helburua. Horretarako egun osoa hartzen duen egitaraua prestatu du elkarteak.

Alejandro Ibarrenaren ideia izan zen elkarte sortzearena. Lakuntzarrak eskarmentu zabala du animaliak trebatzen eta, jakin bazekien, arazoak dituzten pertsoneri animaliek laguntza eskaintzen dietela.

Alejandrok txakurrendako obediencia ikastaroak ematen ditu eta haietara animaliak eraman zituzten nagusi batzuk batu zaizkio elkartera: Aiala Razkin, Uxua Azpiroz, Agustin Zubeldia eta Edor Zubeldia lakuntzarrak eta Edurne Albarrazin etxarriarra. Guztiek ere ziurtatu dute pertsonen eta animalien arteko loturaren bidez hainbat gauza landu daitezkeela.

Egitaraua

11:30etik 13:30era Herriko txakur arraza erakusketa.

Boiero suitzarren gurdi tira erakustaldia. Espainako Boiero suitzarren taldearen eskutik.

17:00etan Agility frogak ikusle goaren txakurren parte-hartzearekin.


18:00etan Txakurren Oinarrizko heziketa erakustaldia.

18:30ean Artzain txakur erakustaldia:

- Antzarrekin gazte gor baten partaidetzarekin
- Ardiekin Angelen partaidetzarekin (minbizi ebakuntza egin diotena)
- Behiekin

20:00etan Idi probak Arrasateko Aterki taldearen eskutik eta Herri kirolak

Lakuntzar batek Mendilur elkartekoendako espresuki margotutako koadroa zozketatuko dute.





[Iruzkina sartu]

BIERRIK ELKARTEA | Foruen plaza 23 ,1. | 31800 Altsasu (Nafarroa) | Tfnoa.: 948 56 42 75 | Faxe: 948 56 21 07 | E-mail: info@guaixe.net
[Web Mapa](#) | [Lege Oharra](#) | [Datuk Babesteko Politika](#) | [Web Diseinu eta Programazioa](#)

